

ETXE HONETAN

Testua: Aintzane Usandizaga

Irudiak: Asier Iturralde, Gaston



XIII. ETXEPARE SARIA (2019)

ISBN 978-84-9172-128-4. Pamiela

Kartoi gogorrean koadernatua. 22 x 25 cm. 36 or. 14 €



Gaur aitonaren etxera noa asteburu-pasa. «Ez dut ulertzen nola moldatzen zareten hain ondo!» esaten didate barrez amak eta osabak.

Egia da aitona gauza txikiek asko larritzen dutela... baina oso erraza da bere etxean nahi duzuna topatzea[...]

Etxean arauak jartzera ohituta dagoen aitaxi baten eta honen egunerokotasuna eta errutina hankaz goiti paratzera datorren ilobaren arteko harremana da gaia. Edonori ezañunak egin ahal zaizkigun egoerak bizitasunez kontatu eta marraztu dituzte autoreek, umorea maisuki erabiliz eta irribarrea lehen minututik sorraraziz. Irakurleak erabaki dezala nork agintzen duen
ETXE HONETAN.

«Egileek ederki uztartu dituzte hitza eta irudia komikiaren trazuak dituen album eder honetan.

Hitz gutxi baina nahikoen bitartez topikoetatik ihes egiten du eta lerro artean erakusten digu familia amak, osabak eta aipatutako bi pertsonaiek osatzen dutela, aitaxi

agure zahar bat ez den gizon euskaldun moderno bat dela eta bera dela zaintza lanetaz eta kozinatzeaz arduratzen dena (errezeta bat eta guzti ematen digu!). Irudi aldetik, aipatzekoak dira erabili diren errekurto narratiboak: etxea bera bertze pertsonaia baten moduan tratatua izan da eta istorioan pasatzen dena azaltzen laguntzen digu. Marrazkiek kontakizunari ekarpena egiten diote eszena bakoitzean eta bertan pausatu eta goitik behera detaileei begira egotera gonbidatzen gaituzte.»

[Etxepare Sariko epaimahaikideen hitzak]

- **Gaia:** belaunaldien arteko harremana, aitona-biloba kasu honetan.
- **Adin egokia:** 5 urtetik aurrera.
- **Nabarmentzeko moduko datuak:** egungo aitonen izakera eta irudi berria, sukaldaritzako lehen pausoak, familia eredu desberdinak (guraso bakarrekoak...). Komikiaren teknika erabiltzen da, Georges Remi (Hergé) egile belgak sortua eta "Ierro garbia" izeneko estilo grafiko eta narratibo bereizgarrikoa...

Aintzane Usandizaga Lopez, Lasarte-Orian jaioa, Artearen Historian lizentziatua (EHU), Kultura Artistikoaren Gizarte Garapeneta Graduondokoa (Malagako Unibertsitatea). Proiektu eta zentro kultural ezberdinetan lan egin du. Oroitzen duenetik maite ditu istorioak, haurra zenetik izan du hauek entzun eta asmatzeko grina.

2014an, Zumaiaiko Udalak antolatzen duen Julene Azpeitia ipuin lehiaketako lehen saria eskuratu zuen, eta 2018an bigarrena.

2019ko udaberrian *Kabitu ezina* liburua argitaratu du Elkar argitaletxearekin.

Asier Iturralde Gonzalez de Alaiza, Donostian jaioa, Arte Ederretan lizentziatua, irudigilea eta diseinugile grafikoak. 2004an erakunde eta enpresentzako grafika eta ilustrazio lanak egiten hasi zen. 2017an, ilustrazio eremua sakontzearen, bide berri bati ekiten dio Studio Gaston sortuz.

Hainbat sari eta aipamen lortu ditu: Portugalete (2 aldiz), KMK, DEIA, Kutxa Kultur... Komiki erakusketetan ere parte hartu du: Rekalde Aretoa, Sala Kutxa... *Balmaseda 700. urteurrena* komikia argitaratu eta *El Balancín* urtekarian ere parte hartu du. Onlineko komiki astekaria argitaratzen du www.betiberdintaberna.art Webgunean.



<http://www.etxeparesaria.eus/>

Pamiela
etxea

Tel.: 948 326 535 / soltxate@pamiela.com
www.pamiela.com